

Errekaleorrek behar zaitu!



Iñaki Barcena
EHU-KO IRAKASLEA

Eredu sozial berria eraikitzearen aldeko adibide asko ditugu gure Euskal Herri txikian, kapitalismoaren logikatik kanpokoak. Okupazio mugimenduak, azpiegitura erraldoien aurkakoak, elikagai subiranotasunean oinarrituak edo komunikabide alternatiboak. Kasu gehiengatik, mugimendu eta antolamendu kritiko hauen gaineko informazioa eta eurekiko elkartasuna, instituzio politiko-administratibo eta enpresen aldetik erasoak eta errepresio saioak izaten direnean pizten da. Hori da hain zuzen, Gasteizko Errekaleor auzoan gertatu dena. Joan den ekainaren 3an 10.000 lagun inguru bildu ginen Errekaleor Bizirik!-ek egindako deialdiari erantzunez eta Gasteizko alkate Gorka Urtaranen kontra. Manifestari askoren buruan zeuden Iñaki Azkunak Kukutzan eta Eneko Goiak Kortxoenean egindakoak. Errekaleor eredu autogestio-nario antikapitalistaren isla da eta horregatik eraitsi nahi dute. Gu, alde gaituzte.

Iberdrolak argindarraren zerbitzua eten eta gero, Errekaleorren trantsizio energetikoari ekin diote. Euskal multinazional energetikoak Donostian ekainaren 28an EHUko Udako ikastaro bat iragarrita zuen *Trantsizio Energetikoa* leloaz, baina bertan behera utzi dute data hau baino egun batzuk lehenago. Ez dakit zein izan ote den arrazoiak, baina ez dut uste kasu honetan interes edo matrikulazio kopuru falta izan direnik. Ameriketako Estatu Batuetako presidente

orde ohi eta Nobel sari Al Gore-k, euskaldunok zorte handia genuela esan zigun Bilboko Guggenheim-en duela urte batzuk. Aldaketa klimatikoari ekiteko Iberdrola eta Gamesa tresna oso baliotsuak dira, haren ustez. Gamesa duela gutxi Siemens alemaniarri saldu diote eta nire aburuz, Iberdrola dugu arazoaren parte (nagusia) eta ez soluzioarena. Kapitalismoaren eredu soziala gainditzeko eredu energetikoa aldatu beharra dago eta trantsizio energetiko hori egitekotan, aldeko eta kontrako indarrak eta eragileak borrokan gaude. Iberdrolari aurre egin nahi diote Errekaleorren eta ez da erraza izango.

Aurka eta alde. Errekaleorren aurkako maiaitzeko erasoa eta gero, jende mordo mobilizatu zen, Altsasuko gazteen kontrako zigorraren kasuan bezala. Euskal Herriko kultura politikoan oso ohikoak ditugu injustizia sozialen aurkako jarrerak eta kritikak. Aldiz, nago, irakasgai bat gainditu gabe dugula oraindik, aldeko jarrera eraikitzaileak sortu behar izateko. Gasteizko auzoan egitasmo energetiko berria martxan jartzeko diru bilketa antolatu berri dute (coopfunding.net/es/campaigns/errekaleorbizirik) eta momentuz 900 lagunek parte hartu dute. Oraindik laguntza txiki asko beharko dute aurrekontua estaltzeko. Zuk ere parte hartu dezakezu, trantsizio energetikoa- ren eta eredu sozial berriaren parte izateko. Ekin! ■

Posturak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Etxean entzuna dut txikitatik: "Jokoa ez da errenta". Amamak historia beldurgarriak kontatzen zizkigun posturen gainean; frontoian baserria jokatu zuen gizonarena, adibidez. Beti imajinatzen nuen gizona etxera itzultzen, emazte eta seme-alabei esaten bizilekua abandonatu behar zutela. Gurdi gainean ihesi, lau trepetxu eta piltzar batzuk jasota irudikatzen nituen nire buruan, film negar-eragile askotxo ikustearen ondorioz. Baina beti jartzen nintzen andre horren larruan, zein latza izan behar zuen ganorabako batengatik ordura arteko bizimodua alboratu behar izateak.

Antzinako kontua dirudi honek. Egia da gaur

egun estampa hori ez dela existitzen, baina ezin ahaztu postura zenbaiten hondamendia direla. Jokoa arazoa da askorendako, eta orain askoz eskuragarriagoa da lehen baino. Ugaritu dira joko-aretoak, tabernetan apustu-makinak daude, internetez ere joka daiteke erruletan, ordu txikietako telebista saioek ere eskaintzen dute trabes egitea. Beti aberastasun promesa faltsuekin, zoriontasun eskurgarria krisi sasoi larri honetan. Droga moduko bat, menpekotasuna sortu samatik ondo oratuta eduki gaitzaten. Sistema honen beste tranpa bat, askatasun ekonomikoaren izenean, posturen esklabotza.

Kantuak esan arren bizitza tonbola bat dela, zorizko jokoa sekula ez dira errenta! ■